



**GEROA**  
**PENTSIOAK**  
BGAE



Lugaritz, 27  
20018 Donostia

Tel. 943 31 70 22  
Fax. 943 31 72 80

[www.geroa.es](http://www.geroa.es)

**2007** *ko*  
**Kudeaketa txostena**

# 2007ko Kudeaketa Txostena

Bazkide agurgarriak:

Ekitaldi guztietan bezela, GEROA PENTTSIOAK BGAE-ko datu adierazgarrienak laburbildurik azaltzen dira, ekarpen, prestazio eta erakundearen garapenaren ohiko atalak, hain zuzen ere, gardentasun eta kalitate osoko informazioa izan dezazuen, entitateko garapena baliozatu ahal izateko.

Geroa Pentsioakera aportatzen duten Sektoreei dagokienez, 2007ko ekitaldian ez da beste berririk sartu, aurreko hamazazpiak mantendu direlarik. Hala ere, bi enpresa berri barneratu dira, erreferentziako hitzarmen probintzialik izan gabe, atxikidura eskaera egin zutelarik, langileen aho batezko onapenarekin.

3 setore: Eraikuntza, Hornitegiak eta Gipuzkoako fruten handizkariak % 0,20 eta % 0,50 artean gehitu dituzte ekarpen-ehunekoak. Ildo berean, Gipuzkoan hitzarmen sektoriale ez duten sei enpresek ere % 0,16 eta % 0,96 artean gehitu dituzte ekarpenak.

Sektore bakoitzaren ekarpenaren ehunekoak desberdina da, baina beti langileen arrisku arruntan oinarriari dagokio. Ekitaldi honetan honako taulan ezartzen diren ehunekoak aplikatu dira:

<i>Sektoreak</i>	<i>2007ko Guztizko Ekarpeneren %</i>	<i>Sektoreak</i>	<i>2007ko Guztizko Ekarpeneren %</i>
Siderometalurgikoa	<b>% 4,00</b> Aldaketarik gabe	Ehun arloko merkataritza	<b>% 1,60</b> Aldaketarik gabe
Zeramika	<b>% 3,50</b> Aldaketarik gabe	Larru arloko merkataritza	<b>% 1,60</b> Aldaketarik gabe
Zuraren industria	<b>% 2,00</b> Aldaketarik gabe	Metal arloko merkataritza	<b>% 2,00</b> Aldaketarik gabe
Garraio-kudeatzaileak	<b>% 3,00</b> Aldaketarik gabe	Gipuzkoako Garbiketak	<b>% 2,50</b> Aldaketarik gabe
Okindegiak	<b>% 1,20</b> Aldaketarik gabe	Hornitegiak	<b>% 4,00</b> %0,50ko hazkundea
Beira	<b>% 3,50</b> Aldaketarik gabe	Fruten handizkariak	<b>% 2,00</b> %0,25ko hazkundea
Eraikuntza	<b>% 3,50</b> <small>Uztailean %0,20ko hazkundea</small>	Merkantzien garraioa	<b>% 1,50</b> Aldaketarik gabe
Papera eta kartoia	<b>% 1,20</b> Aldaketarik gabe	Lokalak, ikuskizunak eta kirola	<b>% 1,00</b> Aldaketarik gabe
Altzariak eta osagarriak	<b>% 1,00</b> Aldaketarik gabe		

2007ko abenduaren 31n ekarpen gordinen guztizko zenbatekoa 85,2 milioi eurokoa da, hau da, % 7,79 hazi da aurreko urteko datuei dagokienez.

Urtearen amaieran, 144.748 bazkide arruntek egin dituzte ekarpenak gutxienez ekitaldi batean; hortaz, aurreko ekitaldiarekiko % 3,37ko gehikuntza eman da. Era berean, ekitaldi honetan 9.987 bazkide babeslek edo enpresek egin dituzte ekarpenak, hau da, 2006an baino % 2,02 gehiago.

Erakundearen ondarea, ekitaldi itxieran, 695,08 milioi eurokoa da (kopuru horretan ez dira barne hartzen ez mutualitate-funtsa, ezta biziarteko errentetarako hartutako

konpromisoen ondoriozko desbideratzeak estaltzeko eraturako borondatezko hornidura ere), aurreko ekitaldiarekiko % 17,70ko gehikuntza izan duelarik.

Entitateak ekitaldi itxieran 15,91 milioi Euroko Mutualitate Funtsa mantentzen du.

Ekitaldiko funtzionamendu eta amortizazio gastuak, langileek bereganatutakoak, kudeatutako batez besteko ondarearen % 0,28 dira. Portzentai honetan ez daude barneratuak inbertsio kolektiboko inbentzioetan eta arrisku kapital entitateetan burututako inbertsioen komisio inplizituak.

## EGOERA-BALANTZEA

2007ko abenduaren 31n, mila eurotan.

### AKTIBOA

Ibilgetua	578
Inbertsioak	693.603
Interes periodifikatuak	15.861
Hainbat zordun	2.311
Diruzaintza	4.418

**AKTIBOA GUZTIRA** 716.771

**GAINB. KONT. EZ GAUZATUAK** 1.658

### PASIBOA

Fondo propioak	676.475
2007 ekitaldiko irabaziak	32.857
Arrisku Prest. Hornidura	7.183
Hainbat hartzekodun	256

**PASIBOA GUZTIRA** 716.771

**GAINB. KONT. EZ GAUZATUAK** 1.658

## GALDU-IRABAZIEN KONTUA

2007ko abenduaren 31n, mila eurotan.

### GASTUAK

Prestazioak, berrasegurua	10.026
Administrazio-gastuak	1.808
Inbertsio-gastuak	14.963
Hainbat eskubide bateratu	75.169
Ekitaldiko mozkina	32.857


**ZORRAK GUZTIRA** 134.823

### SARRERAK


Ekitaldiko kuotak	85.195
Inbertsioen sarrerak	47.461
Arrisku Horn. soberakina.	2.167

**HARTZEKOAK GUZTIRA** 134.823

## IRABAZIEN BILAKAERA




## 2007 B. LIKI-DATIBOAREN BILAKAERA



Partaidetza balioa 1996ko otsailaren 23tik 2007ko abenduaren 31ra, 6,01eurotatik 13,625239 eurotarara garatu da.

# ONDAREAREN BILAKAERA



## Finantza merkatuen ebaluaketa

Finantza-merkatuei dagokienez, 2007. urtea "hipoteka subprime" deritzon krisiak eragin die. Hau da, hipoteka hauek kreditu estandar arruntera iristen ez diren pertsonen onartzen zaizkie, ez-ordainketa arrisku altua barneratuaz. Hipoteka hauek EEBBtan onartu ziren eta titulizatu ondoren, mundu osoko banku eta finantza erakundetan transmititu ziren. Ez-ordainketa gehitzean, krisiak eztaba egin zuen galera handiak eraginez eta mundu mailako ekonomia ziklo aldaketari bide emanen. Gertakari honen ondorioz, mesfidantza eta likidezia falta sortu zen finantza merkatuan, ondorioz, finantziazio baldintzen tentsionamendua eta Banku Zentralen diru sartzeko beharra eman delarik.

Zonaldeka, EEBBtan, 2007a % 2,2ko hazkundearekin amaitzen da (2,9a 2006an), hiru urtetako desazelerazioa eman dela kontutan hartuz, atzerapen posible bat susmatzen da. Euro zonaldean % 2,6ko hazkundera eman da, 2006ko % 2,9aren aurrean.

Urte erdiaz geroztik eman den munduko ekonomien moteltzea, hipoteka subprimeen eztabidagatik eta higiezin sektoreko krisiagatik, inflazio presioen hazkundera globalak lagundu du, petroleoaren eta beste lehengaien prezio altuek eraginda, ekonomia emergenteen dinamismo handiago baten aurrean; batez ere, Txina, India eta Brazil.

Burtsa merkatuek jarrera ona izan dute 2007 urtean zehar; honela, DJ Eurostoxx 50 % 6,79an igo zen; Ibex35, % 7,32an eta Estatu Batuetan, Dow

Jones % 6,43an ezarri zen; S&P 500, % 3,53n eta Nasdaq % 9,81en. Salbuespena Japonia izan da, Nikkei indizea %11 baino gehiago erori zelarik.

Dibisa merkatuan, euroaren indarra gorapatzeko da oinarritzeko momentu internazionalen aurrean; % +10,57 dolarrekin, % +3,78 yenarekin eta % +9,13 liberarekin.

Errenta finako merkatuan, urtea bi zati erabat ezberdinetan banatu da. Urtrairiletik Irailara, Europar Banku Zentralak parte hartu zuen merkatuetan solik eurozkoa eta ekainean interbentzio tasak % 0,25ean haziz % 4ra iritxi arte, eta zonaldeko tentsio inflazionistek aurre egiteko. Urteko lehen zati honetan kreditu diferentzialak beherakada esanguratsua izan zuten eta jardura estrukturala osoa inentzioa izan zen. Analista askok interbentzio tasaren hazkundera handiago aurrikusten zuten, azkenean gertatu eztena. Uztaila bukaera eta abuztu haserako Krisi hipotekari subprimearen eztabidak aurrikuspenen erabateko aldaketa eta kreditu diferentzialen gehikuntza azkarraren eraginez du. Irailan, amerikar Erreserba Federalak bere interbentzio tasa % 0,50an jeitsi du eta beste bi partehartze gehigarri burutzen ditu urtea bukatu aurretik, erreferentzi tasak % 5,25tik % 4,25ra pasatuz.

Honela gauzak, urteko azken zatiko aldaketak esanguratsuki gehitu dira, aurrezki kolektiboko edozein tresnaren kudeaketa zailduaz. Orokorki, 2007 ekitaldiko errentabilitateak ahuldu dira eta inbertsioak kezkatuak daude.

## Inbertsio kartera eta entitateko errentabilitatea

Geroaren kudeaketa-taldek egokitu egin du haren zorroren dibertsifikazioa, eta, horretarako kontuan hartu ditu kaparen berriak, errenta finako errentagarritasun mailak, eta burtsa-merkatuen eta truke-merkatuen bilakaera. Batekik, errenta aldakorren mantentzen ziren posizioak gutxituz joan dira, dibertsifikazio geografikoari eutsiz. Bestetik, arrisku hautematearen ondorioz, likidezia eta burtsa merkatuekin loturirik ez duten aktiboen hazkundera nabarmena eman da, 2008ko helburuak betetzeko kartera presatuaz.

Guzti honekin, Entitateko ondareak 2007 ekitaldia gehien bat errenta finako materializatuaz bukatzen du, % 70,60ko portzentziarekin, balio efektiboan. % 17,97 errenta aldakorri dagokio, % 2,18 higiezin inbertsioari, inbertsio funtsetan bideratua; % 3,17 Funtsetan inbertsioari, % 3,92 Errenta finako aktiboari, Errenta aldakorreko aktiboekin diseinatuak; eta azkenik, % 2,16 Zuzeneko Inbertsioari. Urteko errentagarritasun netoa % 5,326an kokatzen da; hau da, Erakundearen sorreratik %17,4ko balio handitze konposatuko tasa lortu da.

Akzioetan egiten den inbertsioari dagokionez, % 1,78 inguru Espainiako burtsan gauzatu da. Bestalde, nazioarteko akzioetan egiten den inbertsioa honako entitatek kudeatzen dute: Morgan Stanley, Credit Agricole eta Erakundeko kudeatzaileak, ekitaldia amaitzen Inbertsio Karteraren % 9,72a errepresentatuz. Entitateak Norvegiaren nazioarteko errenta aldakorra kudeatzeko zuten hitzarmena ekitaldiko lehen hiruhilabetekoan hautsia izan da. Errenta aldakorreko Inbertsio Zorroko partaidetza, inbertsioaren % 6,47a suposatzen du.

Ekitaldiaren amaieran, inbertsio-zorroa 712,72 milioi eurokoa da, likidezia eta kontabilitatu gabeko errenta aldakorreko ezkutuko gainbalioak

barne eta periodifikatuz eta kobratu gabeko interesak kontutan hartu gabe. Erakundearen inbertsio-zorroa baloratzeke erabili den irizpidea honakoa izan da:

Errenta finako aktiboak eskuratzeko-prezioan baloratzen dira, jaulkitzaile-arriskua salbu, eta ez merkatuko prezioan. Aktibo horiek euroaz bestelako dibisa batean izendatuta badaude, merkatuko prezioetan baloratuko da dibisa hori.

Errenta aldakorra, arrisku-kapitaleko sozietateak edo funtsak barne, batez besteko eskuratzeko-prezioan baloratzen da, edo merkatuko balioan, azken hori txikiago bada, nolanan ere, dibisa-efektua barne hartuz, baldin eta aktiboak eurotan izendatuta ez bada.

Dibisako posizioak, eskura edo epe laburrera, merkatuko prezioan baloratuko dira.

Orza AIE sozietate Erakundearen kontabilitate-balio teorikoan baloratuko da, haren enpresak eskuratzeko-prezioan baloratuta badaude ere.

Erakundearen Gobernu-Batzordeak, 2007ko abenduko Batzordean, Inbertsio Printzipioen Adierazpenaren aldaketa onartu du, inbertsio kartera osatzen duten tipo aktibo batuzten eta bestein banako portzentzia eta multzoko mugatzeko, arriskua murriztu eta kapitala babesteko helburu iraunkorarekin, indarrean dagoen araudira egokituz. Merkatu egoceren itzultze helburuetara egokitzeko, inflazio aldagaia gaitu nahi da.

Alternatibo. F

Dualak


Errenta Aldakorra

Higiezin. F

Zuzeneko Inbertsioa

E/LUZ. Errenta finkoa


E/LAB. Errenta finkoa



## Prestazioak

2007. urtean zehar 1.791 prestazio egin dira, 1.071 erretiroaren ondoriozkoak, 303 balieazintasun osoaren ondoriozkoak, 145 balieazintasun absolutuaren ondoriozkoak, 9 balieazintasun handiaren ondoriozkoak, 196 heriotzaren ondoriozkoak, 52 atzerapenen ondoriozkoak, eta 15 langilearen balieazintasun absolutua, balieazintasun handia edo

heriotza eragin duten lan-istripuen ondoriozkoak. Ordaindutako prestazio horien guztizko zenbatekoa 10,03 milioi eurokoa izan da. Honez gain, ekitaldi berean, errentegatiko hartutako konpromezua 5,48 milioi eurotako izan da.



Balieazintasun edo heriotzaren ondorioz guztira ordaindutako edo hitz emandako prestazioetatik, 449k prestaziok estaldura osagarria izan dute, guztira 7,63 milioi eurokoa. 221 kapital gisa ordaindu dira, eta gainerako 228ak biziartereko errenta gisa eta finantza-errenta gisa ordaindu dira.

beharreko 0,17 milioi euroko birbaloratzea kontutan hartu gabe, Biharko, Consultoria de Fondos de Pensiones y Entidades de Previsión Social Voluntaria, SAK baloratu dituelarik. Bestalde, ekitaldian errenta finantzario moduan hartutako konpromezua 0,26 milioi eurokoa dira.

Abenduaren 31n, 1.229 biziartereko errenta bizi zuzuden eta 24 finantza-errenta. Errenta horiei aurre egiteko GRM/F- 95 taula aktuarialak erabili dira, % 4ko interes-tasa teknikoarekin. Kontzeptu horren ondorioz 2001 urtetik bere egindako konpromezua 24,78 milioi eurokoa dira, 2008an egin

Geroa Pentsioak biziartereko errenta moduan ordaintzen diren prestazioak denboran zehar kaltetu ez daitezzen, konpromezu hau % 25eko hornidura zuzkidura du; 6,24 milioi euroko zenbatekoarekin.

## Gertaera Aipagarriak

2008ko urtarriletik, eta Erakundearen Gobernu Batzordearen erabakiz, biziartereko errenta gisa egiten ari diren prestazioak % 0,70 handituko dira balioz, bai hartutako erabakien eraginez, bai Erakundeak lortu duen errentagarritasunean oinarrituta. Azken bost urtetan biziartereko errentak % 11,62an birbaloratu dira

